

<b>IKASGAIAREN izena</b>	<b>Kreditoak</b>
1.10 Idatzizko komunikazioa: English, Euskara, Castellano	6 ECTS
<b>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan</b>	
<b>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak</b>	
<p><b>GAITASUN OROKORRAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ikasten ikasi:</b> autoezagutza (erronka-detekzioa idatzizko komunikazioari eta autoerregulazioari dagokionez); antolakuntza-gaitasuna eta planifikazio-gaitasuna.</li> <li>▪ <b>Enprendizajea eta berrikuntza:</b> gustua eta sormena azalpen formalean, eta teknologia-bitartekoen eta ikus-entzunezko bitartekoen erabileran.</li> <li>▪ <b>Talde-lana:</b> trebetasunak landu pertsonen arteko harremanetan, helburuak modu koordinatuan planifikatu, lana egiteko orduan hartutako konpromisoak bete: epeak, formatuak, lanaren kalitatea.</li> </ul> <p><b>GAITASUN ESPEZIFIKOAK</b></p> <p>- Eskuratutako informazioa deskodetzeko, aztertzeke, interpretatzeko, eta berregituratzeko gaitasuna hizkuntzaren egokitasuna eta zulentasuna bermatuz hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), eta beti ere komunikazio-egoera aintzat hartuz, hizkuntzalaritza testual eta diskurtsiboaren irizpide orokorren arabera</p> <p><b>EZAGUPENAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Testu-eraikuntzaren oinarriak ezagutu hizkuntzaren generoetan: egoera komunikatiboa, egokitzapena este testualizazioa (kohesioa, konexioa, koherentzia eta modalizazioa).</li> <li>▪ Idatzizko testuak soinu eta ikus-entzunezko hedabideetara egokitzen jakin.</li> <li>▪ Hiru hizkuntzetako testu-generoetako hutsegite arruntenak ezagutu eta zuzendu.</li> <li>▪ Erabilerak eta haien arauak ezagutu.</li> <li>▪ Idazketa prozesua ezagutu (aurreidazketa, idazketa, berrikuspena).</li> <li>▪ <b>Bertako hizkuntzen eta ingelesaren ahozko zein idatzizko erabilera zuzenaren ezagutza</b>, hedabideetako adierazpen modu profesional gisa.</li> </ul> <p><b>TREBETASUNAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Testuinguru jakin batzuetan hizkuntzen erabilerak sortzen dituen zailtasunen kontzientzia izan, eta gainditu beharreko erronka gisa aurre egin zailtasun horiei, jarrera positibo eta irekiz.</li> <li>▪ Hizkuntzen erabileran izaten diren zailtasunei aurre egiteko behar diren estrategiak identifikatu.</li> <li>▪ Nork bere burua hizkuntzen erabiltzaile gisa ezagutu: hizkuntza desberdinetan garatutako gaitasunen kontzientzia izan eta ezagutzak eraikitzeke eta haietako edozeinen bidez komunikatzeko erabili (pertsona eleanitzaren kondizioa).</li> <li>▪ Testu bateko ideia nagusiak atera eta interpretatu.</li> <li>▪ Testu idatzi batetik informazio espezifikoa identifikatu eta atera.</li> <li>▪ Egokitasunez eta zulentasunez adierazi erregistro formal idatzian, testu-genero desberdinetan.</li> <li>▪ Eskuratutako informazioa deskodetzeko, aztertzeke, interpretatzeko, eta berregituratzeko gaitasuna hizkuntzaren egokitasuna eta zulentasuna bermatuz hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), eta beti ere komunikazio-egoera aintzat hartuz, hizkuntzalaritza testual eta diskurtsiboaren irizpide orokorren arabera.</li> <li>▪ Zinema-, telebista-, bideo-, irrati- edo multimedia-fikzioaren alorreko testuak, eskaletak edo gidoiak arintasunez idazteko gaitasuna.</li> </ul> <p><b>Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena</b></p> <p>Ikasgai honek hizkuntza desberdinetako komunikazio idatziaren oinarriko tresnen ezagutzaren, garapenaren eta erabileraren ekarpena egiten du.</p>	

Ikasgaia ikus-entzunezko komunikatzailearen profilerak egokitzen da.

**Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.**

- Metodologiak ikaslearengan jartzen du arreta osoa: tailerrak, praktikak, tutoretzak.
- Lan kooperatiboan oinarritutako metodologia.

**Prestakuntza-jarduerak**

Jarduera presentzialak: (%40)

- eskola magistralak (%15).
- taldekako mintegi-tailerrak (%20).
- tutoretzak (%5).

Jarduera ez-presentzialak: (%60)

- ikasketa eta lan autonomoa (%40).
- taldekako ikasketa eta lan autonomoa (%20).

**Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema**

- Testuak idatzi, taldeka zein banaka, hiru hizkuntzetan. Irizpide hauek hartuko dira kontuan: sormena, zuzentasuna, egokitasuna, erantzukizunaren zentzua.
- Talde portafolioa erabili norik bere burua hizkuntzen erabiltzaile gisa ezagutzeko, behar diren estrategiak erabiliz hiru hizkuntzen erabileran autoerregulatzeko.
- Hiru hizkuntzetako zuzentzaile pertsonalak prestatu eta aplikatu.
- Eskoletan landutako egokitasuna eta zuzentasuna ebaluatzeko proba idatzia egin.

**Edukien laburpena**

(Euskara)

- Elkarrizketa adituari.
- Laburpena, sintesia, eskema (ikasteko generoak).
- Testuak berrikusteko eta ebaluatzeko teknikak.
- Zuzenketa-tekniken praktika taldeka.
- Gaztelaniaz landutako testuen praktika
- Testuen "birziklapena", "birpaketatzea".
- Euskararen araugintza: Euskaltzaindia (ortografia, hutsegite arruntenak).

(Gaztelania)

- Azalpen-testua.
- Iritzi testua.
- Zuzenketa-teknikak landu taldeka.
- Testuak berrikusteko eta ebaluatzeko teknikien praktika.
- Euskaraz landutako testuen praktika
- Testuen "birziklapena", "birpaketatzea".
- Gaztelaniaren gramatika eta ortografia: arauak eta erabilera.

(Ingelesa)

- Laburpenak, sintesiak, eskemak egiteko praktika (ikasteko generoak).
- Zuzenketa-tekniken praktika taldeka.
- Testuak berrikusteko eta ebaluatzeko teknikien praktika.
- Euskaraz eta gaztelaniaz landutako testuen praktika
- Testuen "birziklapena", "birpaketatzea".
- Atzerri hizkuntza: arauak eta erabilera.

ONLINE tresnak:

hiztegiak, testu-zuzentzaileak, bestelakoak.